

Gida didaktikoa

HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I

KATU BOTADUNA

KATU BOTADUNA

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

GIDAREN AZALPENA:

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu.

Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea.

Lanari funtzionaliterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea.

Proiektua hauze litzateke: gelan ipuinak elkarri kontatzea, ondo pasatzeko.

Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak antola daitezke. Beste aldetik, Katuaren estrategiaren gaineko "eztabaida" egin daiteke, talde txikian. Izan ere, katua nahiko gezurtia da; asmo onekoa, baina gezurtia.

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, aditz-denbora egoki erabiliz.

Ekintzak, ordena kronologikoari jarraituz, ahoz kontatzen jakitea, irakaslearen laguntzaz.

Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatuetan, elkarrizketa jakin batzuen imitazioan parte hartzea.

Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

JARDUERAK:

1.- Ahozko hizkuntza:

Proiektua: Talde batek ipuina ikusiko du eta, besteei kontatzeko, paperez egindako siluetak erabiliko ditu.

FASEAK:

a) Mezuaren planifikazioa:

Kontakizuna prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan da ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera.

Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuina hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, hurrek kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

Adibidez:

Behiak Barbantxo egunero jaten zuen ala egun batean jan zuen?

SEMANTIKA:

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: behia, soroa, bazkaria, txantxa, jasan, aitzurra, erein, kiratsa, azkarra...

b) Testualizazioa: (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA).

AHOTSAK: ondo zehaztuko ditugu Narratzailea eta Pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Pertsonaien siluetak egin eta hurrek silueta bana hartutakoan, ipuinaren laburpena antzeztuko dute. Hartara, ikasle guztiek jakin behar dute zenbat pertsonaia diren eta zer esan behar duten. Ez ahaztu haur batek narratzailearen rola egin behar duela.

KOHESIOA

Narratzailearen rola zehazterakoan, honako eduki hauek lantzeko aukera izango dugu:

Izenen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura.

Aditz-denbora eta aspektua: denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

Ariketa kontrolatuak:

Jarduera: Elkarrizketako zati honen imitazioa: Iruzur egiten.

KATUA: Kaixo, herensuge jauna.

HERENSUGEA: (Mehatxuka) Zer egiten duzu hemen? Nola ausartu zara nire kobazuloan sartzen?

KATUA: Eta zergatik ez?

HERENSUGEA: Nire etxea delako!

KATUA: Ba, zoaz beste leku batera bizitzera.

HERENSUGEA: Hau entzun behar ere! Nondik irten zara?

KATUA: Karabaseko jaunaren partetik nator.

HERENSUGEA: Eta jakin daiteke zertara? E?

KATUA: Jakin du oso ahalsua zarela, eta frogatzera etorri naiz.

HERENSUGEA: Frogatu? Zertarako frogatu nahi duzu? Erresuma honetan, mundu guztiak daki.

KATUA: (OFF) Bai, nik ere badakit hori. (ON) Baina ni baino boteretsuagoa ez zara izango. Ejem, ejem...

HERENSUGEA: Ez barre eragin. Izango ez naiz ba! Baina, baina nola ausartzen zara?

KATUA: Oso boteretsua naizelako. Kar, kar...

HERENSUGEA: Eta zer egin dezakezu?

KATUA: Erakutsi zuk lehenago. Zer egin dezakezu?

HERENSUGEA: Nahi dudana bihur naiteke.

KATUA: A, bai? Ezetz sagu bihurtu!

HERENSUGEA: Hori egina dago.

HERENSUGEA: (Sagu bihurturik) Ikusten? Zer esaten duzu orain?

KATUA: Oso ondo, ja, ja, ja, ja.

- Elkarrizketako zati honen imitazioa: Eskerrak ematen.

ERREGIA: Eskerrik asko! Ez zaitugu inoiz ahaztuko!

PRINTZESA: Ez horixe!

KATUA: Eta saria? Ez diozu sariren bat eman behar?
 ERREGA: Uuuhnm! Bai, baina, hain aberatsa baita, zer emango diot?
 NARRATZ: (OFF) Ibon aberatsa? / Ez!
 IBON: Egia esanda, ez naiz aberatsa...
 KATUA: Oh, oh...
 IBON: ...katu hau baino ez daukat.
 KATUA: Ejem... Bai, halaxe da, eta botak.
 IBON: (Ad Lib)
 PRINTZESA: (Ad Lib)
 ERREGA: (Ad Lib) Botak? Bai zera! Ez ditu ba katuak erabiltzen?
 GIZON : (Barre)IBON: Katu hau lotsagabe samarra atera zait.
 ERREGA: Eta azkar porrokatua.
 IBON: Gehitxo agian. Kar, kar, kar...
 ERREGA: Gustura hartuko nuke laguntzaile bezala!
 KATUA: Errege jauna, sentitzen dut, baina nire jauna Ibon da.
 ERREGA: Gera zaitezte biok; hartara, bi laguntzaile izango ditut.
 PRINTZESA: Aita!
 KATUA: Nigatik, konforme. (Iboni) Zer deritzozu?
 IBON: Primeran.
 KATUA: Je, je...

AHOTSAK:

- Irakasleak ipuina kontatuko die haurrei, pertsonaia batek dioena beste baten ahotan jarrita. Adibidez: Ibonek erregeari honela esan zion: "Ez kezkatu, errege jauna. Karabaseko jauna, adoretua izateaz gain, oso argia da".
 Edo: Soldaduak galdetu zuen: "Lierni, zer egiten du katu honek hemen?"
- Pertsonaia ezkutua: Irakasleak pertsonaia baten silueta ezkutatu du. Haurrek nor den esan behar dute, irakasleak esaten duenaren arabera.
 Adibidez: "Gurpil bat apurtu zaigu. Ezin dugu jarraitu." "Herensugea hiltzen duena gure laguna izango da betiko, eta sari bat emango diogu. Erregea." "Herensugea hiltzen duena gure laguna izango da betiko, eta sari bat emango diogu. Erregea." ... Nork esanak dira?

DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:

- Egin galderak: ... Aitak zer eman zion anaia bakoitzari? Norekin joan zen Ibon etxetik? Nora joan zen bigarren anaia? Katuak nori eman zion untxi bat? Zer irakurri zuen katuak? Non zegoen kokatua txartela?
 Non bizi zen herensugea?...
- Gezurrak kontatzen:
 Ibonen anaiek aitaren ondasunak gaizki banatu zituzten. Katuak ez zuen Ibon maite. Ibon oso ausarta zen. Herensugea landarejalea zen...
ADITZ-KOHESIOA: figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:
- Egin honelako galderak:
 Noiz joan zen etxetik Ibon? Katuak zer egiten zuen Ibonek lo egiten zuen bitartean? Zer gosaltzen zuen Ibonek? Herensugeak zer egiten zuen? Zer egin zuen erregeak herensugearekin amaitzeko?...

2.- IDATZIZKO HIZKUNTZA:

Proiektua: ipuin-bilduma egitea.
 Idatzi ipuina, marraztu, margotu eta jarri azala.
 (Ipuinaren luzera ikasleen idazmenaren arabera izango da).

Idazten dakitenek zirriborroa egin dezatela, eta irakasleak zuzenduko die. Garbira pasatu ondoren, egin marrazkiak eta egin azala, izenburua jarrita.

Idazten ez dakitenentzat:

Ipuina idazteko, hurren diktaketan oinarritu gaitezke. Pasatu testu hori garbira, eta eman fotokopia hurrei.

Bestela, honelako zerbait ematen ahal zaie, folioetan banatuta, marrazkia egin dezaten.

– Bazen behin erresuma bat. Bertako erregea oso kezkatuta zegoen herensuge bat jendea jaten eta dena erretzen zebilelako.

– Soldadu asko bidali zituen herensugea hiltzera, baina denak menderatu eta jan egiten zituen.

– Egun batean printzesaren lagunik hoberena joan zen herensugea hiltzera.

– Hura ere hil egingo zela uste zuen printzesak, baina mutila ez zen batere tontoa... eta, herensugea ikusi bezain laster, ziztu bizian alde egin zuen, izututa.

– A ze poza hartu zuen printzesak laguna bizirik ikustean! Baina aita gero eta kezkatuago zegoen: nork hilko zuen herensugea?

– Bitartean, erresumako baserri batean, agure bat hiltzorian zegoen.

– Hiru seme zeuzkan, bera jagoten gauak eta egunak ematen zituztenak.

– Baina agureak ezer gutxi zeukan semeei oinordetzan emateko. Eta bera hil ostean semeak nola moldatuko ziren zerabilen gogoan.

– Horrela, ba, egun batean hiru semeei ohe ondora deitu zien bere ondasunak banatzeko.

– Aita hil egin zen, semeak triste-triste utzita.

– Hurrengo egunean, Ibonek, Jonek eta katuak etxetik alde egin zuten, aurrerantzean etxea anaia nagusiarena baitzen.

– Bi anaiak bide beretik joan ziren, bordarako bidea aurkitu zuten arte.

– Katuak eta Ibonek aurrera jarraitu zuten. Iluntzean, ogi eta gazta apur bat jan ondoren, lotara joan ziren. Gauaren erdian, katua esnatu egin zen, eta, Ibon lotan zegoen bitartean, alde egin zuen. Ehizan joan zen. Untxi bi harrapatu eta zakuan sartu zituen.

– Ibonengana bueltan zihoala, printzesarekin topo egin eta agurtzera hurbildu zen. Zalgurdia konpondu zion. Eta bat-batean ideia bat bururatu zitzaion.

– Printzesak ez zuen Karabaseko jauna ezagutzen. Jakina, gezurti galanta baitzen katua! Eta untxietako bat eman zion.

– Ibon esnatu orduko, gosari bikaina zeukan prestatuta katuak! Halakorik ere! Harrituta bezain gosetuta zegoen Ibon! Benetan itxura ona zeukan untxiak!

– Gauero, Ibon lotan zegoenean, katuak untxiak harrapatzen zituen, Iboni jaten emateko.

– Halako batean, katuak txartel bat ikusi zuen basoan, eta irakurri egin zuen...

– Orduan, gure katu bizkorra erregearen gaztelura joan zen. Printzesak erregearengana eraman zuen.

– Jendea gaztelura joan zen, Karabaseko jauna ezagutzera. Nor zen gazte hura? Nola ausartuko ote zen herensugea hiltzera joaten?

– Katua eta Ibon jauregira joan zirenean, erregea ez zegoen ziur...gazte hark ez zuen oso ausarta ematen. Burutik jota ote zegoen?

– Printzesa kezkatuta zegoen!

– Ibon zain geratu zen kobazuloko sarreraren ondoan. Erabat kezkatuta zegoen: katu gizagaixoa, ziur hilko zela!

– Azkenean, kobazulo barrura abiatu zen katuaren atzetik. Areto zabal batera heldu zen. Hantxe zeuden munstroa akabatzen ahalegindutako soldadu guztien hezur eta hondakinak.

– Erdian, herensugea zegoen, eta katua haren aurrean. Ibonek, beldurraren beldurrez, alde egin zuen ziztu bizian.

– Katuak herensugea engainatu zuen, eta herensugea sagu bihurtu zen. Katuak eskuan hartu eta jan egin zuen. Bukatu ondoren, Ibonengana joan zen korrika. Ibon erabat atsekabetuta zegoen.

– Harrigarria bazen ere, herensugea katuaren sabelean zegoen.

– Erregea, herriko jendea eta printzesa asko poztu ziren eta lagunak egin ziren.
Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Derioko plazan.
Azala haurrek idatz dezakete.

Irakurtzen eta idazten hasteko, honelako ariketak egin daitezke:

- Emandako hitzen artean, aurkitu "Herensugea", "Ibon", "Katua", "Erregea", "Printzesa" hitzak.
- Emandako hitz baten bariazioen artean, bereizi eredia bezalakoa dena. "Herensugea", "Ibon", "Katua", "Erregea", "Printzesa" "Herensudea", "Herensugea", "Nerensugea", "Berensugea", "Kerensugea"...
- Kopiatu honako hitzak eskuz: "Herensugea", "Ibon", "Katua", "Erregea", "Printzesa".
- Honako hitz hauen artean, aurkitu berdintasunak: "Herensugea", "Ibon", "Katua", "Erregea", "Printzesa".
- Osatu hitza: H_r_ns_g_a,....

2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 12/16 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

Gidoi literarioa:

Katu botaduna

IZENBURUA: Katu botaduna

PRINTZESA: (Ad Lib)

NARRATZ: (OFF) Bazan behin erresuma bat. Bertako erregea oso kezkatuta zegoen herensuge batek jendea jaten eta dena erretzen zebilelako.

SOLDADUA: (Ad Lib)

2:43

NARRATZ: Soldadu asko bidali zituen herensugea hiltzera, baina denak menderatu eta jan egiten zituen.

NARRATZ: (OFF) Egun batean printzesaren lagunik hoberena joan zen herensugea hiltzera.

SOLDADUA: Ejem... zera... tira... hau da kobazuloa...

PRINTZESA: (Ad Lib)

ERREGA: Lasai, maitea.

NARRATZ: Hura ere hil egingo zela uste zuen printzesak, baina mutila ez zen batere tontoa...

SOLDADUA: Ba... bai... aurrera ba... sartuko naiz!

NARRATZ: eta herensugea ikusi bezain laster, ziztu bizian alde egin zuen, izututa.

SOLDADUA: Aaaii, lagunduuuuu, (Ad Lib) / Jan egingo nau... // Izugarria izan da, aaaaiiii...

PRINTZESA: (Ad Lib) Baina bizirik zaude...

ERREGA: (Ad Lib)
NARRATZ: (OFF) A zer poza hartu zuen printzesak laguna bizirik ikustean! Baina aita gero eta kezkatuago zegoen: nork hilko zuen herensugea?
NARRATZ: (OFF) Bitartean, erresumako baserri batean, agure bat hilzorian zegoen.
AGUREA: (Ad Lib)
NARRATZ: Hiru seme zeuzkan, bera jagoten gauak eta egunak ematen zituztenak.
AGUREA: (Eztula) Laster hilko naiz... (Ad Lib)
IBON: (Ad Lib) Lasai, aita. Sendatuko zara, ikusiko duzu....
IBON: (Negar)
NARRATZ: (OFF) Baina agureak berak ere bazekien ez zuela sendabiderik.
AGUREA: (Ad Lib) // (Ad Lib)
IBON: Honela hobeto sentituko zara. (Ad Lib)
NARRATZ: Ezer gutxi zeukan semei oinordetzan emateko. Eta bera hil ostean semeak nola moldatuko ziren zerabilen gogoan.
AGUREA: (Eztula)
NARRATZ: Horrela ba, egun batean hiru semeak ohe ondora deitu eta honela esan zien:
AGUREA: Aitor, Jon, zatozte!
AITOR: (Ad Lib)
IBON: (Ad Lib)
AGUREA: Seme maiteok, nire ordua heldu da. Eta, hil baino lehen, gauza bat agindu behar didazue.
IBON: Zer?
AGUREA: Zuen artean liskarrik ez duzuela izango oinordetza banatzeagatik.
JON: Lasai, aita. 4:43
AGUREA: Aitor, etxea zuretzat izango da, nagusia zarelako.
AITOR: Bai, aita. Nahi duzun bezala.
AGUREA: Jon, borda zuretzat izango da, bigarrena zarelako. (Ad Lib)
JON: Bai, aita.
NARRATZ: (OFF) Ibonen txanda heldu zenean...
AGUREA: (Ad Lib) Ibon, zuretzat oso gutxi daukat, baina oso azkarra zarenez, ziur nago ondo moldatuko zarela.
IBON: Ez kezkatu, aita, moldatuko naiz.
AGUREA: (Ad Lib) Badakit oso ona eta oso argia zarela; dena dela, ez dizut gauza handirik utziko. Sentitzen dut, Ibon.(Ad Lib)
IBON: Ez esan hori, aita.
AITOR: Ez horixe.
JON: Aita... mesedez...
IBON: Ez kezkatu.
AGUREA: (Ad Lib) Nire botak eta katua besterik ez zaizu tokatu. (Ad Lib)
IBON: Eskerrik asko, aita.
AITOR: (Ad Lib)
JON: (Ad Lib)
AGUREA: (Ad Lib)
NARRATZ: (OFF) Aita hil egin zen, semeak triste-triste utzita.
NARRATZ: (OFF) Hurrengo egunean, Ibon, Jon eta katuak etxetik alde egin zuten, aurrerantzean etxea anaia nagusiarena baitzen.
AITOR: Agur, ondo joan!
IBON: Ez kezkatu, laster elkar ikusiko dugu berriro.
JON: Agur, laster arte, Aitor.
AITOR: Eta azkar itzuli, mesedez.

IBON: (OFF) Baaai, ez kezkatu.

AITOR: Agur, ondo izan! (Ad Lib) agur, agur...

NARRATZ: (OFF) Bi anaiak bide beretik joan ziren, Joni egokitu zitzaion bordarako bidea aurkitu zuten arte.

JON: Ibon... Ibon... Itxaron. Hau da bordarako bidea... agur esateko ordua dugu. Nola konponduko zara etxerik gabe?

IBON: Ez dakit. Zerbait bururatuko zait.

JON: Baduzu zer janik?

IBON: Ogi apur bat eta gazta.

JON: (Ad Lib) Hartu nirea; nik zer edo zer lortuko dut.

IBON: Ez, eskerrik asko; zuk ere jan behar duzu.

KATUA: (Ad Lib) Baina, baina...

IBON: Agur, zorte on.

JON: Baita zuri ere. // Agur, katua!

KATUA: Agur, bai. Ondo segi.

IBON: Ikusi arte, Jon.

JON: Agur, Ibon, aguuur (Ad Lib).

NARRATZ: (OFF) Katuak eta Ibonek aurrera jarraitu zuten. Iluntzean, ogi eta gazta apur bat jan ondoren, lotara joan ziren. Gauaren erdian, katua

esnatu egin zen eta Ibon lotan zegoen bitartean alde egin zuen.

IBON: (Ad Lib)

KATUA: (Zurrunga) / Ixxxxo.

7:43

NARRATZ: (OFF) Ez pentsa gero, ez zuen Ibon bakarrik utzi nahi, ez horixe! Ehizan joan zen. Untxi bi harrapatu eta zakuan sartu zituen.

KATUA: Nondik sartu ote dira? / Hara, hemen zaudete! / Ea, zakura!

NARRATZ: Ibonengana bueltan zihoala, printzesarekin topo egin eta agurtzera hurbildu zen.

PRINTZESA: Baina ezin duzu azkarrago konpondu?

GIDARIA: Saiatzen naiz, ene printzesa, saiatzen ari naiz, baina ez da gauza erraza izango.

KATUA: Egun on! Zer duzue?

PRINTZESA: (Ad Lib)

GIDARIA: Gurpil bat apurtu zaigu. Ezin dugu jarraitu.

KATUA: Bai, ikusten dut. Nik lagunduko dizuet.

GIDARIA: Zer iruditzen zaizu?

PRINTZESA: O, bai... Eskerrik asko.

NARRATZ: (OFF) Printzesa oso pozik zegoen, hura zortea! Katuak zalgurdia konpondu zion. Eta bat-batean ideia bat bururatu zitzaion.

KATUA: Egina dago, jarrai dezakezue.

PRINTZESA: Mila esker. Nor zara zu?

KATUA: Ni?... Ehm... Karabaseko jaunaren zerbitzaria. Horixe naiz. Je, je...

PRINTZESA: Oooh!

GIDARIA: Ooooh! // (Ad Lib)

PRINTZESA: Karabaseko jauna? (Ad Lib)

KATUA: Bai, lur hauen jabea da.

PRINTZESA: Ba, ez dut ezagutzen (Ad Lib).

GIDARIA: Ez, nik ere ez.

NARRATZ: (OFF) Printzesak ez zuen Karabaseko jauna ezagutzen. Jakina, gezurti galanta baitzen katua!

KATUA: Ez? Ezin liteke! (Zakutik untxia ateratzen.) Ba, hartzazu opari hau nire jaunaren izenean. Hartu, hartu...

NARRATZ: (OFF) Eta untxietako bat eman zion.
PRINTZESA: Eskerrik asko.
KATUA: Ez ahaztu Karabaseko jaunak laguntza eman dizula.
NARRATZ: (OFF) Ibon esnatu orduko, gosari bikaina prestatuta zeukan katuak! Halakorik ere!
Harrituta bezain gosetuta zegoen Ibon! Benetan itxura ona zeukan untxiak!
IBON: (Ad Lib)
KATUA: (Ad Lib)
IBON: Eskerrik asko. Nondik atera duzu?
KATUA: Zuk jan, eta ez kezkatu.
IBON: Bai, bai... Jango dut, jango dut... Baina ez zenuen lapurtuko, e?
KATUA: Ez horixe! Gozoa dago?
IBON: Bai; oso, gainera!
KATUA: Ba, bihar beste untxi bat harrapatuko dut; janariagatik ez zaitez kezkatu.
AITOR: Eskerrak zurekin nagoen! (Ad Lib)
NARRATZ: (OFF) Gauero, Ibon lotan zegoenean, katuak untxiak harrapatzen zituen Iboni jaten emateko.
KATUA: Ea hemendik... // Hara... zer da hori?
NARRATZ: Halako batean txartel bat ikusi zuen basoan eta irakurri egin zuen..
KATUA: "Herensugea hiltzen duena gure laguna izango da betiko, eta sari bat emango diogu. Erregea." Humn, oso interesgarria..
NARRATZ: (OFF) Zer bururatu ote zitzaion orduan gure katu bizkorrari? Ea ikus dezagun.
Hara! Erregearen gaztelura joan zen.
SOLDADUA: Bat, bi, hiru, lau... Eup!
Bat, bi, hiru, lau... Eup! Bat, bi, hiru, lau... Eup! Ai, ene (Ad Lib) Bat, bi, hiru, lau... Eup!
KATUA: La, lara, lala... (Kanta) **11:10**
SOLDADUA: Bat, bi, hiru... E? Nor zara zu?
KATUA: Karabaseko jaunaren partetik nator. Erregea ikusi nahi dut.
SOLDADUA: E? Erregea? (Ad Lib) Eta zertarako ikusi nahi duzu?
PRINTZESA: (OFF) Utziozu sartzen/ ezagutzen dut eta. Zatoz, zatoz nirekin.
SOLDADUA: E? Ziur zaude, Printzesa?
PRINTZESA: Bai, ziur nago.
SOLDADUA: Bueno, tira ba.
KATUA: Ji, ji, ji..
NARRATZ: (OFF) Printzesak erregearengana eraman zuen.
ERREGA: Lierni, zer egiten du katu honek hemen?
PRINTZESA: Hara, aita. Karabaseko jaunaren partetik dator. Lehengo egunean, zalgurdiaren gurpila konpondu zuen eta untxia oparitu zidan.
ERREGA: A, ulertzen dut... (Katuari) Egia da?
KATUA: Bai, jauna!
ERREGA: Eskerrik asko opariagatik. Zerk ekarri zaitu hona?
KATUA: Nire jaunak herensugea hilko duela esatera natorkizu.
ERREGA: Bai? Mmm! Jende askok esan du, baina alferrik.
PRINTZESA: Bai... Aaaiiii.
KATUA: Nire jaunak lortuko du! Zin egiten dizut. (Ad Lib)
ERREGA: Badakizu irabazten ez badu zer gertatuko zaion?
KATUA: Hil egingo da! (Ad Lib)
ERREGA: Hain zuzen! Herensugea oso ankerra da eta!
PRINTZESA: (Ad Lib)
KATUA: Egon lasai; Karabaseko jauna oso trebea da.
ERREGA: Ondo da. Esaziozu niregana etortzeko.

KATUA: Bai, maiestate. Oraintxe, maiestate.
NARRATZ: (OFF) Jendea gaztelura joan zen Karabaseko jauna ezagutzera. Nor zen gazte hura? Nola ausartuko ote zen herensugea hiltzera joaten?
GIZON : Baina nor da hori?
GIZON : Ez dakit, baina ausartzea ere...
EMAKUME : O, herensugeak akabatuko du.
KATUA: Begira ezazue zeinen indartsua den!
NARRATZ: (OFF) Katua eta Ibon jauregira joan zirenean, erregea ez zegoen ziur...
ERREGA: Ba nik ez dut hain indartsua ikusten.
PRINTZESA:(Ad Lib)
NARRATZ: ...gazte hark ez zuen oso ausarta ematen, burutik jota al zegoen?
IBON: Errege jauna..., printzesa...!
KATUA: (Ad Lib)
ERREGA: Beraz, zuk herensugea hilko duzula esan duzu? (Ad Lib)
IBON: Ba...
KATUA: Bai, horixe bera, baina, errege jauna, ni berarekin joango naiz.
IBON: (Ad Lib)
ERREGA: Zergatik? 13:16
KATUA: Ni izango naiz lekuko. Hiltzen bada, berri ematera etorriko nintzateke.
IBON: (Ad Lib)
ERREGA: Ondo da.(Iboni) Ez duzu beldurrik?
IBON: Zerena?
ERREGA: Orain arte saiatu diren guztiak hil egin dira, herensugeak jan egin baititu (Ad Lib)
PRINTZESA: (Ad Lib)
NARRATZ: (OFF) Printzesa kezkatuta zegoen!
KATUA: Ez kezkatu, errege jauna. Karabaseko jauna. adoresua izateaz gain, oso argia da.
IBON: Bai (Glups)
ERREGA: Ez dakit ba, ez dakit ba...
PRINTZESA: Aguuur, oooh!
IBON: (Katuari) Neurritik atera zara!
ERREGA: (Iboni) Beldur zara?
IBON: Zera...
GIZON : Ooooooh!
GIZON : Haraaaa!
KATUA: Bai zera! Gertatzen dela oso apala dela!
IBON: Bai, bai.. hori da, hori da.
ERREGA: (Ad Lib)
PRINTZESA: (Ad Lib)
NARRATZ: (OFF) Erregeak ez zeukan argi, ezta printzesa ere. Eta Ibon are gutxiago, jakina!
Jauregitik irten zirenean...
IBON: Gezurti halakoa! katramila ederrean sartu nauzu!
KATUA: Nik egingo dut dena, lasai!
IBON: Lasai? Ez zaitez zentzugabea izan! Ez zara onik irtengo.
KATUA: Isilik egon eta ez egin ezer. Ados?
IBON: Huuunm! Horixe egingo dut; hiltzen bazaitu ere, ez naiz mugituko.
KATUA: Ez dit ezer egingo!
IBON: Baina.. baina...Nola egon zaitezke horren ziur?
KATUA: (Ad Lib) Eta zergatik ez?
IBON: Burugogor hori!
KATUA: Tira, tira... Gero arte.

IBON: (Ad Lib)

KATUA: Lara, la-la..Hemen da herensugea. Je, je...

IBON: Ez! Ez zaitez sar, jan egingo zaitu! Ai, ene...

KATUA: (Barre) Ez zaitez hemendik mugi. Berehala irtengo naiz, eta herensugea zerraldo ekarriko dizut.

IBON: Baina, baina... arren...

KATUA: Xxxxx! Isil zaitez; bestela, ohartu egingo da, eta orduan bai akabatuko nauela! Aditu didazu? E?

IBON: Bai, bai...

15:16

KATUA: Oraintxe nator ba!

NARRATZ: (OFF) Ibon zain geratu zen sarrera ondoan. Erabat kezkatuta zegoen: katu gizagaixoa, ziur hilko zela!

IBON: Ez da hortik bizirik irtengo. Ezinezkoa da. Ai, ene, zer egin behar dut nik orain? / Tira ba, ausartuko naiz.

NARRATZ: Azkenean, kobazuloaren barrura abiatu zen katuaren atzetik. // Areto zabal batera heldu zen. Hantxe zeuden munstroa akabatzen ahalegingdutako soldadu guztien hezur eta hondakinak.

IBON: Ai, ai, ai... Non sartu naiz?

NARRATZ: Erdian, herensugea zegoen, eta katua haren aurrean. Ibonek, beldurraren beldurrez, alde egin zuen ziztu bizian.

IBON: (Ad Lib) / Lagundu. (Ad Lib) Mesedez.

HERENSUGEA: (Ad Lib)

KATUA: Kaixo, herensuge jauna.

HERENSUGEA: (Mehatzuka) Zer egiten duzu hemen? Nola ausartu zara nire kobazuloan sartzen? (Ad Lib)

KATUA: Eta zergatik ez?

HERENSUGEA: (Ad Lib) Nire etxea delako!

KATUA: Ba, zoaz beste leku batera bizitzera.

HERENSUGEA: Hau entzun behar ere! (Ad Lib) Nondik irten zara?

KATUA: Karabaseko jaunaren partetik nator.

HERENSUGEA: Eta jakin daiteke zertara? (Ad Lib) E?

KATUA: Jakin du oso ahaltsua zarela, eta frogatzera etorri naiz.

HERENSUGEA: Frogatu? Zertarako frogatu nahi duzu? Erresuma honetan, mundu guztiak daki. (Ad Lib)

KATUA: (OFF) Bai, nik ere badakit hori. (ON) Baina ni baino boteretsuagoa ez zara izango. Ejem, ejem...

HERENSUGEA: Ez barre eragin. Izango ez naiz ba! Baina, baina nola ausartzen zara? (Ad Lib)

KATUA: Oso boteretsua naizelako. Kar, kar...

HERENSUGEA: Eta zer egin dezakezu?

KATUA: Erakutsi zuk lehenago. Zer egin dezakezu?

HERENSUGEA: Nahi dudana bihur naiteke.

KATUA: A, bai? Ezetz sagu bihurtu!

HERENSUGEA: Hori egina dago.

HERENSUGEA: (Sagu bihurturik) (Ad Lib) (Ad Lib) Ikusten? Zer esaten duzu orain?

KATUA: Oso ondo, ja, ja, ja. (Ad Lib)

HERENSUGEA: (Ad Lib)

NARRATZ: (OFF) Sagua eskuan hartu eta jan egin zuen. Hura bai gozoa! Mmm! Bukatu ondoren, Ibonengana joan zen korrika. Ibon erabat atsekabetuta zegoen.

KATUA: Epa, Ibon!

IBON: E? Zer gertatu da?
KATUA: Herensugea desagertu egin da.
IBON: Nola?
KATUA: Ja, ja... Irentsi egin dut, ja, ja, ja, ja,!
IBON: E, eeee? 18:05
KATUA: Bai, hementxe dago, jan egin dut!
IBON: Zuk? Jan? Nola..? Ez dizut sinesten.
KATUA: Orduan, entzun ezazu.
HERENSUGEA: (OFF) Laguntzaa! Laguntzaaaa!
NARRATZ: (OFF) Hara! Harrigarria bazen ere, herensugea katuaren sabelean zegoen!
IBON: (Ad Lib)
KATUA: (Barre) Goazen jauregira!
IBON: Bai, goazen lehenbailehen.
KATUA: Kar, kar, kar..
NARRATZ: (OFF) Gaztelutik gertu zeudenean, jendea goraiatzan hasi zen! Hura zen poza!
GIZON X: Giroa (Gora, etab.)
GIZON Y: Giroa
GIZON Z: Giroa
EMAKUME X:Giroa
IBON: Kaixo... Eskerrik asko... eskerrik asko.
KATUA: Ez da ezer izan.
GIZON : Gora Karabaseko jauna!
EMAKUME : Gora! Salbatu egin gaituzte!
KATUA: Milesker... Kar, kar..
IBON: Ba, ez da zaila izan.
AINHOA: Nola egin duzu?
MIKEL: Minik egin dizu?
AINHOA: Oso handia zen?
IBON: Bai, baina... Nik kontatuko diot, ados?
KATUA: Ados. Goazen
ERREGA: Eta... Herensugea, zer?
IBON: Ez du berriro inor eragotziko. /// Kar, kar, kar..
GIZON : Gora Karabaseko jauna!
GIZON X: Gora!
GIZON Y: Gora!
EMAKUME X:Gora!
ERREGA: Albiste ona da hori.
PRINTZESA:Bai.
KATUA: Zer esan nizun?
IBON: Zer esan nizun?
ERREGA: Eskerrik asko! Ez zaitugu inoiz ahaztuko!
PRINTZESA:Ez horixe!
KATUA: Eta saria? Ez diozu sariren bat eman behar?
ERREGA: Uuuhnm! Bai, baina, hain aberatsa baita, zer emango diot?
NARRATZ: (OFF) Ibon aberatsa? / Ez!
IBON: Egia esanda, ez naiz aberatsa..
KATUA: Oh, oh..
IBON: ...katu hau baino ez daukat.
KATUA: Ejem... Bai, halaxe da, eta botak.
IBON: (Ad Lib)

PRINTZESA: (Ad Lib)
ERREGA: (Ad Lib) Botak? Bai zera! Ez ditu ba katuak erabiltzen?
GIZON : (Barre)
IBON: Katu hau lotsagabe samarra atera zait. **19:37**
ERREGA: Eta azkar porrokatua.
IBON: Gehitxo agian. Kar, kar, kar...
ERREGA: Gustura hartuko nuke laguntzaile bezala!
KATUA: Errege jauna, sentitzen dut, baina nire jauna Ibon da.
ERREGA: Gera zaitzete biok; hartara, bi laguntzaile izango ditut.
PRINTZESA: Aita!
KATUA: Nigatik, konforme. (Iboni) Zer deritzozu?
IBON: Primeran.
KATUA: Je, je...
PRINTZESA: (Ad Lib)
GIZON : Biba etab.
AINHOA: Biba etab.
MIKEL: Biba etab.
EMAKUME : Biba etab.
NARRATZ: (OFF) Herriko jendeari ere primeran irudituko zitzaion. Eta printzesari ere bai. Izan ere Ibon oso lagun ona iruditu zitzaion eta musu eman zion.
ERREGA: Zoaz berarengana.
PRINTZESA: Bai, bai... (Muxu)
IBON: Oooh!
KATUA: Ji, ji, ji...
SOLDADUA: Bat, bi, hiru, lau... Eup! Buelta! Bat, bi, hiru, lau... Eup! Nola zen? A, bai... Buelta! Bat, bi, hiru, lau... Eup! Beste buelta bat!
NARRATZ: Handik aurrera erresuma hartan bakea zen nagusi/// Soldadua aspertuta zegoen: beti zelatan egon behar... zertarako?
(hogeita hamazazpi) Ez baitzegoen arriskurik, ala bai? Hara! Itxaron pixka bat. Zer da arrautza handi hori? Oi, ene, mugitzen hasi da. Hau ezustea! Herensugearen kumea!
KUMEA: (Ad Lib) (Ad Lib) (Ad Lib)
NARRATZ: (Hamazazpi) Zer egingo du? Bidean aurkitzen duen guztia txikitzen du. Eta gaztelurantz doa!
KUMEA: (Ad Lib) (Ad Lib) (Ad Lib)
SOLDADUA: Bat, bi, hiru, lau.. Eup! Buelta! / Bat, bi, hiru, lau... Eup! Orain zer? A, bai... Eup! buelta!
KUMEA: (Ad Lib)
SOLDADUA: (Ad Lib) Ai ene! Zer da hau? Laguntza eskatuko dut. Karabaseko jaunaaaaa!!
KUMEA: (Ad Lib)
NARRATZ: Baina lasai, herensuge honek ez daki nori egin behar dion aurre, gizagaixoa!

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskal Herriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-746/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**